

## BURUJABETZA FEMINISTAREN BIDEAN, PREKARITATEARI PLANTO


Ofentsiba neoliberalak, botere ekonomikoaren menpe dauden gobernuen laguntzaz, egunez egun pobretzen gaitu. Kapitalismoak zuzenean mehatxatzen eta erasotzen du bizitza, erailtzera arte. Adibiderik agerikoena muturreko egoeretan daudelarik bizitza kentzea erabakitzet duten pertsonak dira. Krisitik ateratzen ari garela dioten ahotsei, langabezia jaisten ari dela diotenei galdeztzen diegu: Zein baldintzatan? Zer nolako prezioa ordaintzen ari gara langileok adierazle ekonomiko makroak gora egin dezaten? Aldiz, egoeraren normalizazioak kezkatzen gaitu. Krisiaren aitzakiapean egindako egiturazko erreformek sistema kapitalistaren aurpegirik gordinena erakusten dute, pobre eta aberatsen arteko amildegia handituz, prekarietatea behin betikotuz, lehiakortasun soziala eta individualismoa areagotuz. Eta ez, langile emakumeok, migranteok, transok, presook, dibertsitate funtzionala dugunok ez gaude irabazleen bandoan.

Gure bizitzak baldintzatzen dituzten erabakiak gero eta urrunago hartzen dituzte, boteredun ekonomikoen interesen mesedetan. Hor dugu TTIP hitzarmen antideomokratikoa, ezkutuan ezarri dena, eta korporazio multinacional handien onurarako politika sozialak deuseztatuko dituena, pribatizazioa inposatu eta tokian tokiko gobernuen boterea ahulduko duena. Ezin ahaztu erreforma hauek borroka sozialen kriminalizazioa eta militarizazioa handituz ezarri dituztela.

Egiturazkoa den krisi orokor honetan zaintza lanen krisi sakona bizi dugu. Honen aurrean, botere faktikoak emakumeon zaintzaile rola indartzen eta familia heteropatriarkala bultzatzen ari dira bizitza aurrera eramateko berme bakar gisa. Beti bezala, sistema kapitalista jendarte patriarkalaz baliatzen da etekinak metatzeko. Emakumeok egiten ditugun zaintza lanetan (aitortu eta ordaindu gabekoa) jardundako aktibitatea eta denbora lapurtzen dizkigute merkatura bideratutako ekonomiaren funtzionamendua bere horretan mantendu ahal izateko.

Bizi eredu aldaketa sakonen aurrean gaude eta sistema patriarkal kapitalistak bortxaz ekarri gaitu gaur bizi dugun aldaketa honen tenorera. Bilgune Feministan errealitate hau feminismotik iraultzeko garaia dela uste dugu.


Ondo bizitza helburu izanik, gaurtik hasita bizi baldintza duinen aldeko erresistentzia mekanismoak eta alternatibak sortu behar ditugu. Horretarako, pobrezia eta urgentziak prekarietate egoerak identifikatu behar ditugu. Eskubide sozialen defentsan, oinarrizko beharrak asetzeko bermeak ezartzea ezinbestekoa izango da. Baino argi dugu ingurumenaren, herrien, langileen eta emakumeen esplotazioan oinarritutzako ongizate estatu kapitalistak ez digula balio. Ez dugu inolaz ere eredu hori aldarrikatuko. Horregatik, bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jarriko duen sistema nolakoa izan behar duen, eta nola garatuko dugun hausnartzen hastea premiazkoa deritzogu.



Feminismotik hainbat gako nabarmenduko genituzke: Lanaren ikuspegia zabaltzeko beharra (ikuspegi produktibista gaindituz). Zaintza eta etxeko lanen aitortza eta hauen banaketa kolektiboa bermatu behar dugu sexuen araberako lan banaketa gainditzeko. Gaur egungo familia, lagunarte eta sexu ereduak gainditu behar ditugu eta sexu identitate hegemonikoak irauli. Gizarte Segurantzaren erregimen berezian enplegatuak daudenak, hau da, baserritarra, etxeko langileak zein sexu-langileak lan eskubide guztien jabe izan behar dira. Gainera, denbora politizatu behar dugu, honen banaketa justu eta parekoa lortzeko eta gure behar eta nahiak asetzeko aukera emango diguten *tempusak* sortzeko.

Bidean oztopoak izango ditugu, mugekin topatuko gara, baina burujabetza feministaren hautua egin dugu eta hauek guztiak gainditzeko prest gaude. Norbanakoentzako ahalduntze eta desobedientzia praktika mikroetatik abiatuz, herri prozesu kolektiboetara egin behar dugu salto. Eskubide Sozialen Karta bezalako prozesuak baliatu behar ditugu elkarlanean jarduteko, Euskal Herrian erabakitzeko eskubidea berreskuratzeko eta herritarron parte hartzea bermatzeko. Langabetuok, prekariook, zaintzaileok... denak gara langileak eta langile moduan zapalduak. Beraz, mobilizazioa eta indarrak batzea ezinbestekoa da presio mekanismoak sortu eta errealtitatea eraldatzeko boterea eskuratzeko.

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA  
Euskal Herrian 2015eko apirilaren 27an



## ¡HACIA SOBERANIA FEMINISTA , PLANTO A LA PRECARIEDAD!

---

La ofensiva neoliberal, con la ayuda de los Gobiernos que están bajo el dominio del poder económico, nos empobrece día a día. El capitalismo amenaza y ataca directamente la vida, hasta asesinar. El ejemplo más claro son las personas que deciden quitarse la vida en situaciones extremas. A las voces que aseguran que estamos saliendo de la crisis, que baja el desempleo, les preguntamos: ¿En qué condiciones?, ¿Qué precio estamos pagando las trabajadoras para que crezcan los indicadores macroeconómicos? Nos preocupa la normalización de la situación. Las reformas estructurales que se han hecho en nombre de la crisis nos muestran la cara más cruda del sistema capitalista, agrandando la brecha entre pobres y ricos, perpetuando la precariedad y aumentando la competitividad social y el individualismo. Y no, las mujeres trabajadoras, las trans, las presas, las que tenemos diversidad funcional, no estamos en el bando de los ganadores.

Las decisiones se toman cada vez más lejos de nosotras, a favor de los intereses de los poderosos económicos. Ahí tenemos el acuerdo antidemocrático TTIP, que se ha impuesto a escondidas, y el cual anulará las políticas sociales en beneficio de las grandes corporaciones multinacionales, impondrá la privatización y debilitará el poder de los Gobiernos locales. No podemos olvidar que estas reformas se han impuesto mediante la militarización y la criminalización de las luchas sociales.

En esta crisis general y estructural, vivimos una profunda crisis de los trabajos de cuidados. Ante esto, los poderes fácticos están impulsando el rol de la mujer como cuidadora y la familia heteropatriarcal como la única garantía de desarrollar los cuidados que sostienen la vida. Como siempre, el sistema capitalista se vale de la sociedad patriarcal para acumular beneficios, a través de robar el trabajo sin reconocimiento y sin remuneración que hacemos las mujeres, para mantener el funcionamiento de la economía dirigida al mercado.

Nos encontramos ante profundos cambios en los modelos de vida y es el sistema capitalista patriarcal el que nos ha traído a la fuerza a este tiempo de cambio que vivimos hoy. En Bilgune Feminista creemos que es la hora de transformar la realidad desde el feminismo.

Desde hoy y teniendo el buen vivir y la vida digna como objetivo, tenemos que crear mecanismos de resistencia y alternativas a favor de condiciones de vida dignas. Para ello, es imprescindible que identifiquemos las situaciones de pobreza y de precariedad urgentes, que defendamos los derechos sociales y que creemos garantías para saciar las necesidades básicas. Pero tenemos claro que no nos vale el estado de bienestar capitalista que se basa en la explotación de los pueblos, los trabajadores y las mujeres, y no reivindicaremos ese modelo de ninguna manera. Por eso, es indispensable crear un debate colectivo, en el que acordaremos qué quiere decir poner la sostenibilidad de la vida en el centro del sistema y cómo queremos hacerlo.

Desde una perspectiva feminista resaltaríamos algunas claves: Tenemos que ampliar la perspectiva que tenemos del trabajo, superando la lógica productivista, y también tenemos que garantizar el reconocimiento y el reparto colectivo de los trabajos domésticos y de cuidados, para superar así la división sexual del trabajo. Tenemos que superar los modelos actuales de familia, amistad y de sexualidad, y revolucionar los modelos hegemónicos de identidad sexual. Las empleadas que están en el régimen especial de la Seguridad Social, por ejemplo, las campesinas, las cuidadoras o las prostitutas, tienen que tener todos los derechos laborales. Tenemos que



politizar el tiempo para conseguir su justo e igualitario reparto y para poder crear *tempus* que se compaginen con nuestras necesidades y deseos.

En el camino tendremos topes, nos encontraremos con límites, pero hemos hecho la elección de la soberanía feminista y estamos preparas para superarlos. Partiendo del empoderamiento individual y de mircroprácticas de desobediencia, tenemos que dar el salto a procesos populares colectivos. Tenemos que servirnos de procesos como el de la Carta de Derechos Sociales para colaborar colectivamente, para recuperar el derecho a decidir en Euskal Herria y para garantizar la participación popular. Desempleadas, precarias, cuidadoras... todas somos trabajadoras y oprimidas como tales. Por lo tanto, es imprescindible que nos movilicemos y que unamos fuerzas para crear mecanismos de presión y poder así conseguir el poder para transformar la realidad.

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA  
En Euskal Herria, a 27 de abril de 2015